

## **Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen aurrean agerraldia**

Kaixo eta egunon legebiltzarkide eta Hezkuntza Batzorde kide.

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu agerraldi honetara gonbidatu izanagatik. Demokraziaren funtzionamendu egokian ohikoa beharko lukeen egoera honek, hau da jendartearen eta langileen ordezkari garen sindikatuon ahotsa eta iritzia legebiltzarrean eta herri honen agintaritza duzuenok entzuna izatea, ez da tamalez sarritan gertatzen. Nahiko genuke gaurko hau egoera horretan salbuespena izaten ez jarraitzea. Beraz, lehenik eta behin, mila esker gonbitea luzatu diguzuenoi eta entzutera agertu zaretenoi.

2011-12 ikasturte hasieraren inguruko informazioa eta ELAren iritzia emateko eskatu diguzue eta hala egiten saiatuko gara. Honetarako ordea, esan beharrean gaude gure kabuz eta bide ez ofizialetatik jasotako datuetan oinarritu beste biderik ez zaigula geratu. Izan ere, behin eta berriro ELAk esan eta salatu duen moduan, beste behin ere, ikasturte honetarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ez digu benetako jarraipen bat egin ahal izateko informazio nahikorik eman nahi izan. Gogoratu beharrean gaude, informazio hau, gure lanerako funtsezkoa dela eta ondorioz EAEko hezkuntza sistemaren kontrol demokratiko eta garapen egokirako. Izan ere, langileok, bai hezkuntza alorrekoak zein gainerakoek, zer nolako hezkuntza nahi dugun eta hau bermatzeko zein bitarteko behar ditugun erabaki ahal izatea gizarte demokratiko eta sozial baten oinarritzko zutabe da. Ezin da kalitateko hezkuntzarik eskaini gure jendarteak dituen hezkuntza beharrak asetzeko egoki prestaturiko langile nahikorik gabe, ezin da lan-baldintza egokirik gabe

egin.

Informazio falta larri hau izanda ere, gure kabuz 2011-12 ikasturte hasiera honetan ikusi ditugun gabezia eta arazoei heldu baino lehen, hauek aurretik ere sufritzen ari garen egoera larriaren baitan kokatu nahi ditugu.

Izan ere, legebiltzarraren eta hezkuntza batzorde honen aurrean esan beharrean gaude 2011-12 ikasturteko murrizketak, aurreko hezkuntzaren baliabide eskasei eta 2010-11 ikasturteko murrizketa larriei gehitzen zaizkiela.

Zenbait datu emate arren, hauek ere ELAk bere kabuz lortu behar izan dituenak, 2010-11 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzan 3.000 inguru ikasle gehiago izan genituen eta ondorioz 200 gela inguru gehiago. Egoera honi erantzuteko aurreko ikasturteetako irakasle eta gela arteko proportzioa mantenduz 350 irakasle-lanpostu gehitu beharko lituzke departamentuak, baina hazkunde erreala 80koa besterik ez zen izan, hau da, berez hazi beharko lukeena baina 270 irakasle gutxiagokoa.

Bigarren Hezkuntzan oraindik ere murrizketa larriagoa eman zen. 2010-11 ikasturtean 2009-10ean baina 2.000 inguru ikasle gehiago izan genituen, %2 ikasle-talde gehiago, baina 262 irakasle gutxiago izan ziren ikasle hauen heziketaz arduratu zirenak. Aurreko ikasturteetako ikasle eta irakasle arteko proportzioa mantenduz, ikasle igoera honi aurre egiteko 400tik gora irakasle gehiago beharko lirateke, baina Hezkuntza Sailaren erabakiz 262 irakasle gutxiago izan genituen. Beraz, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza kontutan izanda 2010-11 ikasturtean emandako lanpostu murrizketa praktikoa 1.000 ingurukoa izan zen.

Honi ordezkapenetan emaniko murrizketak gehitu behar zaizkio. Honetan ere Hezkuntza Sailak daturik pasa ez digun arren, kasu askotan astebete pasa bitarte ez da ordezkorik bidali ikastetxeetara. Argia da neurri hauek ikasleen heziketa bidean suposatzen duten traba eta ordezkapen horiek bete behar dituzten gainerako irakasleei eta langileei ezartzen dieten gainkarga, beraien lana ongi prestatzeko, behar bereziak dituztenei arreta egokia emateko edota hezkuntzaren kalitatea hobetzeko parte hartzen duten proiektuei behar bezala erantzuteko.

Hezkuntzako langileen prestakuntza ikastaro eta bitartekoetan ere murrizketak izan dira, modu bereziki larrian irakasleen euskara hobetzeko IRALE programan.

Eta hauei guztiei soldatetan emandako murrizketa onargaitzak gehitu behar zaizkie, hezkuntzako langileek egiten duten lana gutxietsiz eta lan eta bizi baldintzak okertuz.

Aurreko egoera larri honen testuinguruan etorri dira aurtengo ikasturte hasierako murrizketak.

2011-12 ikasturtean, 7.708 ikasle gehiago ditugu EAEko ikastetxeetan Hezkuntza Sailak komunikabideen bitartez jakinarazi digunez, 5.800 inguru Haur eta Lehen Hezkuntzan eta 1.900tik gora Bigarren Hezkuntzan. 7.708 ikasle gehiago horietatik 5.071 hezkuntza publikoan omen daude eta horri aurre egiteko 200tik gora irakasle gehiago ditugula dio Sailak. Ez dakigu oraindik itunpeko irakaskuntzan eman den gehikuntzari aurre egiteko zenbatetan handitu diren lanpostuak, handitu badira, Hezkuntza Saila eta itunpeko patronalak 2010etik egiten ari diren murrizketak kontutan izanik.

Edozein modutara ere, nahikotzat jotzen al ditu baliabide hauek Eusko Jaurlaritzak? 200 irakasle gehiago Hezkuntza Publikoan 5.000tik gora ikasle gehiago hezteko, gutxienez 600tik gora beharko liratekeenean? Hau al da Hezkuntza murrizketatik babestea? Hau al da hezkuntzaren kalitatea bermatzea? Eta izan garbi murrizketa hauek ez dietela ikasle berriei bakarrik eragiten. Ikasle guztiei eragingo die, bere hezkuntza beharrei erantzuteko irakasle, hezitzaile eta langile gutxiago izango baitituzte. Hezkuntzako langile guztiei eragingo die, orain arteko lan-karga astunak are gehiago kargatuko baitzaizkie. Eta azken batean, guraso eta jendarte osoari eragiten die murrizketa hauek, gure seme-alabei eta egungo eta etorkizuneko herritarrei egiten zaien eraso zuzena baitira murrizketak.

Bestalde, murrizketa hauek egiteko erabili diren moduak guztiz salagarriak iruditzen zaizkigu. Beharrianak zeintzuk diren ikusita, orain arte urte luzetan lanean aritu diren ordezkari asko eta asko lanik gabe geratu dira eta beste askok bere lan-baldintzak okertzen ikusi dituzte, murrizketa hauek aplikatzeko

erabili diren formulek eraginda.

Besteak beste,

- Hezkuntza Sailak beraien artean kidetasun edo afinitaterik gabeko ikasgaiak eman behar dituzten plazak perfilatu ditu eta ondorioz irakasle askori irakasteko prestatuta dauden ikasgaiak gain ikasgaia emateko perfilik gabe eta prestaketarik gabeko ikasgaiak sartu dizkie esleipenetan, honela hainbat plaza partzial aurreztuz, baina ondorio pedagogiko eta laboral izugarriak sortuz.
- 2011-2012. ikasturteko Lanpostuen Zerrendak ez ditu errespetatzen indarrean dagoen Lan hitzarmenaren irizpideak. Lan hitzarmenaren 22. artikulua, ratioak jasotzen ditu: gelako zenbat ikasle eta bikoizketak ze kopuruekin egiten diren. Irizpide hauen arabera bikoiztu behar ziren hainbat gela, gela bakar batean geratu dira.
- Hainbat ikastetxetan, ikasle talde kopurua berdina izanik, Lanpostuen Zerrenda gutxitu egiten da. Lurraldeetan aurtengo ekainean egindako Planifikazio bileretan honen zergatia eskatu genuen eta Lakuatik erantzungo zigutela esan ziguten. Ba gaur da eguna oraindik ez digutela erantzun eta ikastetxe horiek talde kopurua berdina edukiz, lanpostu zerrenda murriztu zaie.
- Eskola txikiak. Arazoak dituzte kudeaketa behar bezala egiteko. Kudeaketetarako gehigarria eskatzen badute ere, Hezkuntza Sailak ukatu egiten die.

Halere administrazioak esan ohi digu indarrean dauden irizpideak bete direla, "salbuespen batzu ezik", "ajuste batzuk egin direla" eta ikastetxeen aldarrikapen orokorra 0,5 irakasle gehitzea dela.

Esleipen Telematikoa dela eta hitz bi ere esan nahi ditugu. Teknologi berriek eskaintzen dizkiguten abantailak gureganatu behar ditugulakoan gaude, baina araudiak eta eskubideak errespetatuz. Hutsune asko eta larri izan dira:

- Lehenik esan ikasturte haserako esleipenak Hezkuntza Sailak aurretik ondo planifikatu ez duenez, oporretan izan direla, irakasleok ditugun oporrak eta

atsedena errespetatu gabe.

- Lanaldi erdiko lanpostuak aukeratzeko orduan, 50km-tako distantzia errespetatzeko eskubidea sisteman ez da aurreikusi
- Esleipenean, plaza guztiak atera behar dira. Baina Hezkuntza Sailak plaza batzuk beti ahaztu egiten ditu. Aurten, urte osoko bakante batzuk ez dira eskaini eta izan dituzten hutsuneak konpontzeko erabili dira, edo eta ondoren telefonoz eman dira, zerrendetan aurrerago zeuden irakasleen eskubideen kaltetan
- Praktiketako funtzionarioen kasuan, Haur Hezkuntzan bereziki, existitzen ez ziren plazak esleitu dira. Hau konpontzeko Irailaren 3ko esleipenerako haur hezkuntzako urte osoko plazak blokeatu egin dituzte, falta ziren praktiketako funtzionarioei emateko. Jende asko kaltetuta geratu da Hezkuntza Sailaren akatsengatik.
- Ordezkoetan ere existitzen ez ziren plazak esleitu dira.
- Esleipenean plaza zentro bakarrean eman eta ondoren beste ikastetxe batekin batera partekatu beharra izan dutenak ere badira.
- .....

Aurtengo ikasturtean iazko ordezkapen politikarekin jarraitzeko asmoa duela adierazi du Hezkuntza Sailak.

Langileen prestakuntza eta irakaskuntzaren euskalduntzerako ikastaro eta baliabideak ere murriztuta jarraituko dutela, gehiago murrizten ez badira.

Eta soldatak ere murriztuta jarraituko dute, gutxienez.

Honi gehitu behar zaizkio:

- Hainbat eskola-sukalde pribatizatzeko ahaleginak,
- Lehen Hezkuntzako erlijio irakasleei aplikatu nahi zaien diskriminazioa, orain arte Kontratu partzialak dituzten langileei, ordu lektiboen kopurua ere murriztu zaielarik,

- Haurreskoletan alor guztietan egiten ari den murrizketa larria,
- Itunpeko ikastetxeetan gertatzen ari diren murrizketa eta hainbat kaleratze,
- Unibertsitateko langileen egoera tamalgarria...

Gogoratu beharrean gaude hezkuntza langileen artean behin-behinekotasuna %25 eta %40 bitartean dagoela. 2009an Eusko Jaurlaritzak 3 urtetan 5.100 plaza egonkortzeko konpromisoa hartu zuela eta oraindik (2011 bukaera honetan) 3.585 lanpostu falta direla oposaketetara ateratzeko.

Egoera hau izanik, ELAri oso larria iruditzen zaio Eusko Jaurlaritzak hezkuntza komunitateari eta euskal jendarteari EAEko hezkuntza egoera paregabean dagoela eta inolako murrizketarik ez direla egiten ari sinestarazi nahi izatea.

Gogoratu beharrean gaude, ELAk behin eta berriro salatu duen moduan, hezkuntzara bideratzen den BPGari begira Eusko Jaurlaritzak OCDEko herrialdeen batz-besteak baino 1,6 puntu gutxiago bideratzen duela, hau da, gure jendarteak hezkuntzarako gainerako herrialde garatuen batz-besteak baino 1.000 milioi € gutxiago jasotzen dituela (UNESCOK gomendatzen duena baino 1.600 milioi gutxiago, Danimarkak bideratzen duena baino 2.700 milioi gutxiago, Frantziar Estatuak baino 1.300 milioi gutxiago edo Espainiar Estatuaren batz-bestekoa baino 500 milioi gutxiago).

Hau al da herri honetan hezkuntzari eman nahi diogun garrantzia eta baliabideak?

Egoera hau izanik, oraindik ere aurrez aipaturiko murrizketak egitea bidezko deritzo Jaurlaritza honek?

Eta azkenik, agerraldi honetako gaia ez den arren, ELAk bere erabateko desadostasuna agertu nahi du hezkuntza elkartearen gehiengoaren kontra eta hezkuntza eragileak inola ere kontutan izan gabe Hezkuntza Saila inposatzen ari den hezkuntza politikarekin: "Bizikidetza demokratikoa sustatzeko eta indarkeria deslegitimatzeke Plana" edo bake plana deitua, hezkuntzatik Euskal

Herriaren nortasun nazionala, kulturala eta geografikoa ezabatzeko ahalegina, edo hirueletasunaren aitzakiarekin euskararen ezagutza eta erabilera kaltetzen duen hizkuntza politika.

ELAk legebiltzarreko Hezkuntza Batzorde honi eta zuen talde parlamentariei eskatzen die eska diezaiola Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Sailari, bere hezkuntza politikak berbidera ditzala, utzi ditzala murrizketak alde batera, bidera dezala gurea bezalako herri batek merezi eta behar dituen hezkuntza aurrekontu eta baliabideak eta elkarbana eta adostu ditzala bere hezkuntza politikak hezkuntzako gainerako eragileekin eta hezkuntza sistema posible egiten duten langileen ordezkariekin.

Mila esker zuen gonbidapen hau luzatu izanagatik, gure iritzia eskaintzeko aukera emateagatik eta zuen guztion arretagatik.

